



**OIN MUGIKORREKO BI ERDIATOI ESTANKO BERRIREN  
HORNIKUNTZAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEKO ADMINISTRAZIO  
BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA**

**AURKIBIDEA**

1	KONTRATUAREN XEDEA .....	3
2	ALDAERAK .....	3
3	ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA.....	3
4	KONTRATUZKO DOKUMENTAZIOA.....	3
5	BURUTZEKO EPEA.....	3
6	KONTRATUAREN PREZIOA.....	3
7	PREZIOEN BERRIKUSKETA .....	4
8	ORDAINKETA MODUA.....	4
9	FINANTZAKETA .....	4
10	BERMEAK.....	4
11	HORNIKUNTZA HARTZEA ETA BERME-EPEA.....	4
12	KONTRATUAREN ALDAKETAK .....	5
13	KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK.....	5
14	KONFIDENTZIALITASUNA .....	5
15	KONTRATUAREN ARDURADUNA.....	5
16	KONTRATUA BURUTZEA.....	6
17	PRESTAZIOA HARTZEA.....	6
18	EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK.....	7
19	KONTRATUA ETETEA .....	7
II.-	KONTRATAZIOA EGITEKO PROZEDURA .....	8
20	ESLEIPENAREN PROZEDURA .....	8
21	KONTRATATZEKO GAITASUNA. ....	8
22	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKU ETA EPEA.....	9
23	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.....	9



2013 EKA. 03 (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2013 EKA JUN 20



Idazkaririk,

24	IZAPIDETZEA ETA NEGOZIAZIO-FASEA.....	14
25	ESKAITZEN SAILKAPENA, KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA .....	15
26	ESLEIPENDUNARI ESKATZEN ZAIZKION AGIRIAK .....	16
27	KONTRATUA HOBETU ETA FORMALIZATZEA.....	16
28	ZUZENBIDE ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA .....	17
	1. eranskina .....	18
	ADIERAZTEN DU .....	18

## I. KONTRATUAREN XEDEA

### 1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren helburua bio-hondakinak garraiatzeko oin mugikorreko BI erdiatoi estanko berriren hornikuntza da, G.H.K. SAU entitatearen zerbitzuetan erabiltzeko. Erdiatioiek baldintza teknikoen agirian (BTA) agertzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

### 2 ALDAERAK

Aldaerak onartzen dira, betiere, BTA-n xedatutakoa betez.

### 3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Entitate kontratatzailea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA S.A.U. entitatea da (aurrerantzean GHK).

Kontratazio organoa administrazio kontseilua da. Kontseilu horrek, hala badagokio, eta aplikagarri diren zuzenbide pribatuko arauak betez, egokitzat jotzen dituen pertsonen eskumena eman diezaieke kontratuarekin lotutako esku-hartze jakin batzuetarako.

### 4 KONTRATUZKO DOKUMENTAZIOA

Esleipenaren ostean sinatutako kontratuaz gain, kontratuzko izaera dute klausula ekonomiko eta administratiboen agiri honek eta baldintza teknikoen agiriak (BTA)

Kontratua formalizatzeko ekitaldian esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu horien adostasuna adierazteko.

### 5 BURUTZEKO EPEA

Entrega/kontratazio-epea berrogeita hamar egun naturalekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik hasita.

Aipatu epea igarota kontratista berandutu egin dela ulertuko da eta ez da beharrezkoa izango aldeztatik GHK-k ohartarazpenik egitea.

Hornikuntza baldintza teknikoen agirian adierazitako lekuan entregatu beharko da.

### 6 KONTRATUAREN PREZIOA

Gastuaren aurrekontu osoa 130.000,00 €koa izango da (BEZ aparte. Matrikulazio- eta kudeaketa-gastuak barne, beharko balira).

Lizitazioaren tasa gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira.



## 7 PREZIOEN BERRIKUSKETA

Ez dagokio.

## 8 ORDAINKETA MODUA

Kontratuaren prezioaren ordainketa dagokion faktura aurkeztu eta G.H.K. entitateak onarpena eman ostean burutuko da. GHK entitateak zenbatekoaren % 5 aurreratuko du kontratua sinatzean.

## 9 FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioaren ordainketa finantzatzeko, indarreko aurrekontura joko da.

## 10 BERMEAK

Hartutako betebeharrak beteko dituela bermatze aldera, kontratuaren esleipendunak behin betiko berme bat eratu beharko du. Berme horren zenbatekoa esleipen-zenbatekoaren % 5 izango da, BEZ aparte.

Berme hori eratzeko 10 egun balioduneko epea izango du, 21. klausulan adierazten den eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik hasita. Berme hori eratzeko Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 96. artikuluan adierazitako bideetako bat erabili beharko da. Eraketa hori egiaztatzeko bide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabili ahal dira. Baldintza hau lizitatzailari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ea bada, Udalak baztertu egingo da haren aldeko esleipena.

Bermea, osoa nahiz partziala, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 102. atalean xedatutakoa betez itzuliko da, behin berme-epea amaituta eta esleipendunak kontratuzko betebeharrak guztiak bete dituenean.

## 11 HORNIKUNTZA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Hornikuntza entregatu eta, gehienez, hilabeteko epean hura hartzeko ekitaldi formal eta positiboa burutuko da.

Hornikuntza jasotzeko moduko baldintzan ez badago, hala adierazi beharko da eta, kontratistari akatsak zuzentzeko edo adostutakoarekin bat datorren hornikuntza berri bat entregatzeko adieraziko zaio. Zuzenketa edo ordezkapenik egiten ez bada, GHK entitateak kontratistaren kontura utziko ditu eta ordaintzeko betebeharrak salbuetsita geratuko da, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du.

Halaber, BI URTEKO epea ezartzen da harrera formala egiten den egunetik hasita. Epe hori berme gisa ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean adierazitakoa betez.



Berme-epairen barruan, GHK entitateak eskubidea izango du akatsak edo okerrak dituzten ondasun hornituak konpondu edo zuzentzeko, hori aski balitz.

GHK entitateak berme-epe horren barnean hautemango balu hornikuntzan emandako ondasunak ez direla helburua betetzeko askiak kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo okerren ondorioz eta, era berean, horiek konpondu eta zuzentzea helburua betetzeko aski ez dela aurreikusiko balitz, eskubidea izango du aipatu epeairen barnean ondasunak ukatu eta kontratistaren kontura uzteko.

## 12 KONTRATUAREN ALDAKETAK

GHK entitatek kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiak direla medio SPKLTBko 107. artikuluan adierazten den egoeraren bat gertatzen bada; betiere, hori eginda lizitazioari eta esleipenari dagozkion funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Arestian aipaturiko balizko aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

## 13 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratistak kontratua hura burutzeko ezarritako epe osoaren barnean bete beharko du derrigorrean. Halaber, kontratua hartako klausuletan eta agirietan ezarritakoa betez gauzatu beharko du, eta kontratazio organoak kontratistari haiek interpretatzeko emandako argibideei jarraiki.

Kontratista derrigortuta egongo da lan arloan indarrean dauden xedapenak, Gizarte Segurantzakoak, Segurtasun eta Higienekoak eta Laneko Arriskuen Prebentzioakoak betetzera.

Kontratistak izaera pertsonaleko datuak hartuko balitu, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik eta hura garatzeko arauditik eratorzen diren betebeharrak bete beharko ditu.

## 14 KONFIDENTZIALTASUNA

Prozeduran parte hartzen dutenei esleipena jakinaraztearekin lotuta agirian xedatutakoaren kalterik gabe, kontratazio organoak ezingo du hedatu enpresaburuak konfidentzial gisa izendatutako informazioa; puntu honek, bereziki, sekretu eta komertzialei eragiten die.

Kontratistak kontratua burutzean hartzen duen, kontratuan konfidentzial gisa izendatzen den edo duen izaeragatik konfidentzialtzat hartu beharreko informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du.

## 15 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat esleituko du. Hura arduratuko da kontratua gauzaten dela behatzeaz eta adostutako hornikuntza behar bezala burutzen

delat ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta argibideak emateaz. Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridikoa izan daiteke. Orobat, arduradun hori GHK entitateko edo aparteko langilea izan daiteke.

Zehazki, hauek dira bere funtzioak:

- Kontratazio organoari proposatzea kontratistari berandutzeagatik eta oker burututakoen ondorioz ezartzeko zigorrak.
- Hornikuntza hartzera bertaratzea eta, hala badagokio, jasotzat ematea.

## 16 KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua Administrazio klausula Partikularren Agirian adierazitako epean burutuko da, kontratua sinatzen den egunetik hasita.

Ondasunak baldintza teknikoen agirian ezarritako denbora eta lekuan entregatuko dira, baldintza teknikoak eta administrazio klausulak betez. Hala ere, kontratua burutzen den artean, GHK entitateak adostutakoa ez den leku bat finkatzeko eskumena izango du.

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da, SPKLTBko 231. artikuluan ezinbesteko kausei dagokienez ezartzen denaren kalterik gabe. Azken artikulua hori espresuki aplikatzekoa da.

Kontratua agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian hitzartutakoak zorrozki betez gauzatuko da. Era berean, kontratuaren interpretazio teknikoa aintzat hartuz, haren arduradunak kontratistari emandako argibideak jarraituko dira.

## 17 PRESTAZIOA HARTZEA

Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da kontrataturiko hornikuntza gauzatu duenean, bertan adierazitakoak betez eta GHK entitatearen oniritzia izanik.

Hornikuntza baldintza hauetan jasotzea eskatzen da:

GHK entitateak erabakiko du kontratistak hornikuntzan emandako ekipamenduak hura burutu eta jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen dituen. Hala badagokio, harreraren hautemandako akatsak konpontzeko eska dezake. Hornikuntza ez badator bat kontrataturiko prestazioarekin kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo okerren ondorioz, GHK entitateak hura ukatu ahal izango du eta ordaintzeko betebeharretik aske geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.



GHK  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

Lezkarria



GHK  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

## 18 EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratista kontratua burutzeko epean (epe osoan nahiz, hala badagokio, zatikakoan) berandutu balitz hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, GHK entitateak erabaki hauetako bat har dezake: kontratua etetea, bermea galaraztea, edo zigorrak ezartzea (egunean euro bat kontratuko prezioko 1000 euroko).

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren % 5eko multiplo batera iristen direnean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua eteteko edo beste zigor batzuk ezarri harekin jarraitzeko.

### B) PRESTAZIOEN ZATIKAKO EGIKARITZEA EZ BETETZEA

Kontratatik, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztuak dauden prestazioen zatikako egikaritzea ez balu beteko, GHK entitateak bi aukera izango ditu: kontratua etetea edota kontratuaren zenbateko osoaren %10ari dagokion zigorra jartzea.

### C) AKATSEKIN BETETZEA

Prestazioa akatsekin beteko balu, GHK entitateak kontratuaren aurrekontuaren %10ari dagokion zigorra jarri ahal izango du.

## 19 KONTRATUA ETETEA

Kontratua eteteko arrazoiak izango dira SPKLTBko 223. eta 299. artikuluetan adierazten direnak. Era berean, kontratua eteteko arrazoi izango da kontratuzko edozein betebeharrak ez gauzatzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan ezartzen dena betez.

Kontratua aurretiaz eteteak ondorio hauek izango ditu:

- Etetea bi aldeen arteko adostasunez egiten bada, horien eskubideak bat etorriko dira GHK entitatearen eta kontratistaren artean baliozki hitzartutakoarekin.
- Kontratua kontratistaren erruz eten bada, GHK entitatearen kalte-ordaina eman beharko dio inkautaturiko bermearen zenbatekotik gorako kalte eta ordainetarako. Edozein kasutan, kontratuaren prezioaren zigor-klausula bat ezarriko da.

Klausula horretan aurreikusten ez denerako, SPKLTBko 224., 225. eta 300. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

## II.- KONTRATAZIOA EGITEKO PROZEDURA

### 20 ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratua teknikoki eta ekonomikoki onena den eskaintza aurkezten duen lizitatzailari esleitu zaitzaio, **publizitate-dun prozedura negoziatu** bidez.

### 21 KONTRATATZEKO GAITASUNA.

GHK entitatearekin kontratatu ahal dute jarduteko ahalmen osoa duten eta kontratatzeko debekuren batean murgilduta ez dauden pertsona natural edo juridikoak, espainiar zein atzerriarrak.

Kontratu honen zehaztapen teknikoak edo hura prestatzeko dokumentuak eratzen parte hartu duten enpresak ezingo dira lizitazioan lehiatu; betiere, parte-hartze horrek lehia librean murrizketak sorrarazten baditu edo gainerako enpresa lizitatzailerekin alderatuta tratu pribilegiatua izatea eragiten badu.

Halaber, enpresaburuek kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa burutzeko, hala dagokionean, eska daitekeen gaitasun profesionala edo enpresa mailakoa izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izango dira soilik kontratuko prestazioak, fundazio-estatutu edo -arauen arabera, berezko jardueraren xede, helburu edo izaerarekin bat datozenean.

Edozein kasutan, GHK entitatearekin kontratatu ahal dute Europar Batasuneko estatu kide diren enpresa ez espainiarrek, haien estatuko legedia betetzen badute; betiere, dagokion prestazioa burutzeko gaituta egonik.

Enpresa horien kokaleku diren estatuko legediak baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen duenean dagokion zerbitzua bertan emateko, baldintza hori betetzen dela egiaztatu beharko da.

Europar Batasunekoak ez diren Estatuetakoa pertsona fisikoek edo juridikoek, aurkezten den dokumentazioarekin batera joango den Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek egindako txosten baten bitartez, egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko Estatu horrek, halaber, onartzen duela Administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatutako erakundeekin, organismoekin edo sektore publikoko entitate parekagarriekin kontratatzeko lehiaketetan Espainiako enpresek parte har dezaketela, honen antzeko modu batean.

GHK entitatearekin kontratatu ahal dute denbora baterako eta helburu horrekin eratzen diren enpresa-elkarteak. Horren harira, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura





publikoan formalizatzea kontratua esleitzen zaien arte, adierazitakoa aplikagarri izanik.



...e)an onartua  
...azkariak,

## 22 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKU ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea eta hartara atxikitako dokumentazio teknikoa GHK entitatearen bulegoetan (Orbegozo Eraikina, Ibaiondo 27. 3. solairua; Hernani) aztertu ahal da goizeko zortzi eta erdietatik (08:30) arratsaldeko ordu bata eta erdira bitartean (13:30), lizitazio honen iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitu bitarteko egun baliodun guztietan.

Horiek adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira 15 egun naturalen barnean, aipatu iragarkia agertu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Halaber, lizitazioa kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean iragarriko da. Gune horretara informatika-atari edo web-orrialde honetatik sar daiteke: [www.ghk.sa.net](http://www.ghk.sa.net).

Gune horretan agiriak eta dokumentazio osagarria behatu daitezke.

## 23 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

Eskaintzak aurkeztean lizitatuzaileak agiri honetan eta kontratuzko gainerako dokumentuetan adierazitako guztia baldintzarik gabe onartzen duela ulertzen da, inolako salbuespenik gabe.

Lizitazio honetan parte hartzeko enpresa lizitatuzaileek gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko dute GHK entitatearen bulegoetan, gonbidapena egin edo iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo 15 egun naturalen barnean. Gutun-azal horretan, geroago adieraziko den dokumentazioarekin batera, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta sinatzailearen kargua, telefono- eta fax-zenbakia eta posta elektronikoko helbidea adierazi beharko dira, guztia modu irakurgarrian.

Gutun-azalean hau idatzi beharko da: **“Oin mugikorreko BI erdiatoi estanko berriren hornikuntzan parte hartzeko eskaintza”**.

Eskaintzaileak eskaintza postaz bidaltzen badu, postetxera eraman zen eguna justifikatu egin beharko du eta, egun berean, GHK entitateari telex, fax edo telegrama urgente bidez jakinarazi beharko zaio eskaintza bidali egin dela. Halaber, jakinarazpena posta elektronikoz egin daiteke. Posta elektronikoz bidetzko jakinarazpena soilik baliozkoa izango da datak eta jakinarazpenetako eduki osoa bidali eta jaso direla ziurtatzen bada, eta bidaltzailea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzen badira. Kasu horretan, inprimatutako kopia hartu eta erregistratu egingo da, ondoren espedientean sartzeko.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira edo bidalketaren jakinarazpena eskaintzak jasotzeko ezarritako epea igaro ostean jasotzen bada, eskaintza baztertu egingo da.

Gutun-azalean dokumentu hauek sartuko dira:

a) Lizitatzailleak eta, hala badagokio, bere ordezkariak jarduteko ahalmena duela egiaztatzeko dokumentuak:

- Pertsona juridiko diren enpresaburuen jarduteko ahalmena eraketa-eskrituraren edo -agiriaren bidez, estatutuen edo fundazio-aktaren bidez egiaztatuko da, eta bertan jarduera hori arautzen duten arauak agertuko dira, hala badagokio, dagokion Erregistro publikoan inskribatuta, pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko ahalmena egiaztatzeko, bizi diren Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen arabera zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

- Atzerriko gainerako enpresaburuek enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo kontsuletzeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute jarduteko ahalmena egiaztatzeko. Txosten horren bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak, funtsean, modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBko 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisiko diren enpresaburuen jarduteko ahalmena egiaztatzeko Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion estatuko dokumentu baliokidea aurkeztu beharko da.

- Beste baten izenean bertaratu edo proposamenak sinatzen dituztenek, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu beharko dute. Era berean, ordezkaritza horretarako nahikoa ahalmen dutela egiaztatu beharko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalmena Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da, Merkataritza Erregistrorako Araudiaren 94. artikulua betez hala eskatzen denean.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuek elkarkea eratzen edo eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Halaber, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkarkea eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkarkearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean.

Dena den, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aldi baterako enpresaburuaren elkarteko kide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du, agiri honetan aurreikusitakoaren arabera. Orobat, elkarteko kide bakoitzaren ezaugarri egiaztatuak metatu ahal dira elkarre horren kaudimenari so. Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorra (aurrerantzean HAKLAO) onartzeko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 52. artikuluan adierazitakoaren kalterik gabe, zeina horri dagokionez, aplikagarria baita erabat.

Dokumentazio originalak aurkeztu beharko dira. Edo, bestela, behar bezala konpultsatutako edo egiaztatutako kopiak.

b) Kasua zein den, lizitatuak SPKLTBko 60.1 artikuluan kontratatzeko ezartzen diren debekuetako bat ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena, lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horretarako eskuduntza duenak agiri horiek egin ezin baditu, administrazio-ko agintaritzak, notario publiko batek edo erakunde profesional kualifikatu batek egindako erantzukizunpeko adierazpen batek ordez ditzake. Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresak badira, dagokion estatuko legerian horretarako aukera ematen bada, enpresaburuak agintaritzak judizial baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu ahal izango du.

Adierazpen edo lekukotza horretan lizitatuak indarreko xedapenez agintzen diren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena egin beharko da. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeke agiriak, gehienez, hamar (10) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, kontratazio organoak ekonomikoki onena den proposamena aurkeztu duen lizitatuari agiri horiek aurkezteko eskaera egiten dionetik zenbatzen hasita.

Eredua atxikitzen da 1. eranskinean

c) Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioak egiaztatzeke agiriak.

Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioak SPKLTBko 75.a artikuluan adierazita bezala egiaztatuko da. Finantza-entitateen adierazpen egokia, hala badagokio, laneko arriskuen kalte-ordainak ordaintzeko aseguruia badutela egiaztatzen duen agiria.

d) Atzerriko enpresek edozein ordenatuko Espainiako epaitegi edo auzitegi-tako jurisdikzioaren mende jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zerikusituzena edo zeharkakoa duten gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, lizitatuari egokitu dakioken atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela ere bai.

Oharra: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak arautzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzailleek ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, a) atalean eskatzen diren agirien ordeaz. Ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du.

Atzerriko enpresek agiriak gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztu beharko dituzte edo, hala badagokio, euskarara. Paperezko dokumentazioaz gain, eskaintza osoa formatu elektronikoan bidali beharko da derrigorrean, cd batean.



2013 EKA. 03

.....(e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2013 EKA JUN 20



GHK

Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

Idazkaririk,

g) Proposamen ekonomikoa, azpiko eredia jarraituz beteta:

“.....Jn./And, helbidea .....  
.....(e)an duenak, ..... N.A.N. zenbakiarekin eta  
.....telefonoaren jabe denak; gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun  
osoaren jabe denak, bere izenean (edo .....ren ordezkari gisa,  
helbidea..... an duenak, .....N.A.N. edo  
I.F.K. (pertsona fisikoa izan ala juridikoa izan) zenbakiarekin; oin mugikorreko BI  
erdiatoi estanko berriren publizitadedun prozedura negoziatu bidezko lizitazioan parte  
hartzeko GHK entitatearen gonbidapena jasorik

ADIERAZTEN DU:

1º) Hartan parte hartzeko konpromisoa hartzen duela .....  
euroko prezioan, BEZ aparte.

Osagarri modura, dagokion BEZa fakturatuko da.

Prezio horretan edozein kontzeptu sartzen dela ulertzen da, gainerako zerga,  
gastu, tasa eta edozein eremu fiskaleko arielak barne, eta baita kontratistaren  
industria-mozkina ere.

3º) Ezagutzen dituela kontratazio hau arautu behar duten klausula  
ekonomiko eta administratiboen agiria eta baldintza teknikoen agiria eta guztiak  
onartzen eta berresten dituela.

4º) Ordezkatzen duen enpresak, zergekin eta Gizarte Segurantzarekin lotuta,  
indarreko araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen  
dituela.

.....an, 2013ko .....ren.....(e)an.

Sinadura”.

h) Proposamen teknikoak:

- Hornikuntzaren xehetasunezko memoria, ezaugarri tekniko guztiak behar bezala deskribatuta eta BTAn agertzen diren baldintza tekniko guztiak betetzen dituela espresuki adierazita.

i) Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak egiteko erabiliko den posta elektronikoa

## 24 IZAPIDETZEA ETA NEGOZIAZIO-FASEA

G.H.K. entitateko teknikariek denbora barnean eta aipatutako modua betez aurkeztutako agiriak sailkatuko dituzte eta, konpon daitezkeen akats edo gabeziak hautemango balituzte, gehienez hiru (3) egun balioduneko epea emango da lizitatzailleak akats edo gabezia horiek konpon ditzan.

Hala badagokio, aurkeztutako agirietan hautemandako akats edo gabeziak konponduta, eta eskatzaileen izaera eta kaudimena egiaztatu ostean, negoziazio-faseari ekingo zaio. Fase horretan alderdi ekonomiko eta tekniko hauek jorratuko dira.

Hauek dira negoziazioan jorratu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak: (prezioa, berme-epea, mantenu-lantegien gertutasuna, hobekuntzak, etab.).

Lizitazioko oinarritzko prezioetik gorako proposamen ekonomikoak dituzten eskaintzak ez dira aintzat hartuko.

Lizitatzailleak garraio-ekipamenduaren prezioa eman beharko du eskaintza ekonomikoan, agiri honetan proposamen ekonomikoa egiteko agertzen den ereduari jarraituz.

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, P1 (hobekuntza maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 (0ko hobekuntza, puntuazio minimoa) puntuak definitzen duten lerrozuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan, interpolazio lineala egingo da.

Puntuak hauek dira:

Non,  $B_{max}$  = Beherapen maximoa

Beherapena (B) honela kalkulatu da: lizitazio motaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, zati lizitazio mota.



## 25 ESKAINTZEN SAILKAPENA, KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA

2013 EKA. 03 (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2013 EKA JUN: 21



GHK  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

Kaizkariak,

Aurkeztutako eskaintzak ikusirik eta, parte-hartzaileekin dagozkion negoziazioak burutu eta, hala dagokionean, amaituta, GHK entitateko Zerbitzu Teknikoek eskaintzen jakinarazpena emango dute eta txosten hori Kontratazio Mahaiari igorriko diote. Kontratazio Mahaiak bere proposamena eman aurretik, kontratazio organoari egingo dion eskaintzen sailkapena egiteko beharrezkoak diren txosten tekniko eta juridikoak eskatu beharko ditu.

Kontratazio organoak normalaz edo neurritz kanpokotzat jo gabeko proposamenak (baldintza teknikoen agirian halakotzat jo badira) handienetik txikienera sailkatuko ditu. Sailkapen hori egiteko, agirian edo iragarkian jarritako esleipen-irizpideak izango dira kontuan. Horretarako, egoki ikusten dituen txosten tekniko guztiak eska ditzake.

Kontratazio organoak proposamen ekonomikorik onena egin duen lizitatzailari eskatuko dio agiri hauek aurkez ditzala eskaera hori jaso eta hamar (10) egun baliodunen barruan: behin betiko bermea (esleipen-prezioaren % 5) ordaindu izanaren agiria, zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko agiriak, edo, bestela, ahalmena eman diezaiola kontratazio organoari horren egiaztapena zuzenean eskuratzeko. Ziurtagiriak bide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz igor daitezke, baldin eta agirian besterik adierazten ez bada.

Baldintza hori aipatutako epean betetzen ez bada, lizitatzailak eskaintza baztertu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, hurrengo lizitatzailaren dokumentazioa jasoko da, eskaintzen sailkapeneko hurrenkerari jarraituz.

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baliodunen barruan esleitu beharko du kontratua. Esleipenean zehaztu eta finkatuko dira kontratuaren behin betiko baldintzak.

Agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamen bat dagoenean, lizitazioa ezingo da esleitu gabe utzi.

Esleipena arrazoitua izan beharko da, hautagai edo lizitatzailak jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Edozein kasutan, jakinarazpenean beharrezkoa den informazio guztia agertu beharko da, bereziki hauek adieraziz:

- a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitza hori ez onartzeko arrazoen azalpen laburra.
- b) Esleipen-prozeduratik baztertutako lizitatzailen kasuan, eskaintza ez onartzeko arrazoen azalpen laburra.

- c) Kasu guztietan, esleipendunaren izena eta bere eskaintzaren ezaugarri eta abantailak, onartu diren beste eskaintzekin alderatuta hori aukeratzeko determinatzaileak izan direnak.

Esleipenaren arrazoiketan aplikagarri izango da SPKLTBko 153. artikuluan konfidentzialtasunarekin lotuta agertzen den salbuespena.

Jakinarazpena, jasotzaileak hori jaso duela ziurtatzea ahalbideratzen duen edozein modutan egingo da. Bereziki, posta elektronikoz egin daiteke, hautagaiek edo lizitatzzaileek proposamenetan adierazitako helbidera bidaliz, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 legeko 28. artikuluan adierazitako moduan. Hala ere, jakinarazpena ukatutzat emateko epea bost (5) egunekoa izango da, azaroaren 26ko 30/1992 legeko 59.4. artikuluan adierazten diren ondorioekin.

## **26 ESLEIPENDUNARI ESKATZEN ZAIZKION AGIRIAK**

Aurreko klausulan adierazitakoarekin batera, agirietan eskatzen den aseguruaren polizaren agiri eguneratuaren egiazko kopia.

Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartea eratu izana egiaztatzeko agiria.

Kasu guztietan, aipatutako Ekonomia-jardueren gaineko zergaren matrikulan baja egoeran ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

## **27 KONTRATUA HOBETU ETA FORMALIZATZEA**

Kontratua formalizatuz hobetuko da.

Kontratua agiri pribatu bidez formalizatuko da 5 eguneko epearen barnean, esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, SPKLTBko 151.4. artikuluan aurreikusita bezala.

Hala ere, esleipendunak kontratua eskritura publikora eramateko eska dezake. Kasu horretan, formalizazioaren gastuak bere kontura izango dira.

Kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua aipatu epearen barnean formalizatzen ez denean, SPKLTBko 156. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.



### III. ZUZENBIDE ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

#### **28 ZUZENBIDE ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratuak izaera pribatua du.

Prestaketari eta esleipenari dagokienez, kontratua honakoek arautuko dute: baldintza ekonomiko eta administratiboen agiriak, baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, GHK entitateak kontrataziorako emandako barnejarraibideek, horri dagokionez SPKLTBan ezarritako arauak eta, lege horretan adierazitakoaren kontrakoa ez bada, HAKLAOan ezarritakoak.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, kontratua honakoek arautuko dute: baldintza ekonomiko eta administratiboen agiriak, baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, GHK entitateak kontrataziorako emandako barnejarraibideek eta zuzenbide pribatuko arauak.

Horrez gain, SPKLTB eta HAKLAO aplikagarri izango dira, agiri honek testu arauemaile horietara espresuki jotzen duenean.

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua prestatzeari, esleitzeari, betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

HERNANIN, 2013ko ekainaren 3an.

**Jose Manuel Franco Insausti**

**Produktu- eta prozesu-ingeniarria.**



(e)an onartua  
Idazkariak

1. eranskina

**LIZITATZAILEAK SPKLTBKO 60. ARTIKULUAN KONTRATATZEKO JASOTZEN DIREN DEBEKURIK EZ IZATEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

(adierazpen-eredu hau derrigorrez betetzekoa da)

.....Jn/and. ....NAN zenbakia duenak, berezko izenean edo (ordezkatzeko eskumenak adierazi; administrari bakarra, ahaldua), ..... IKF zenbakia duen.....enpresa ordezkatzan duenak

**ADIERAZTEN DU**

Berak eta berak ordezkatzan duen enpresak ez dutela Administrazioarekin kontratatzeko debekurik, Kontratu Publikoen Legeko Testu Bateginaren 60. artikuluan ezartzen denarekin lotura dutenak.

Berak eta berak ordezkatzan duen enpresak indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituztela.

Eta hala agertu eta dagozkion ondorioetarako, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du . . . . .(e)an, .....(e)ko.....ren.....(e)an

Sin.

Enpresaren zigilua